

UNIBASQEN ETIKA- ETA BERME-BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA

1. artikulua. Batzordearen helburuak

Unibasqen Etika eta Berme Batzordearen helburuak izango dira Unibasq barruan egiten diren jardun guztiak gardenak direla eta Etika Kodean ezarritakoa errespetatzen dela zaintzea eta bermatzea.

Helburu horiek lortzeko, Etika eta Berme Batzordeari honako hau dagokio:

- 1) Kodea behar bezala ezartzen, interpretatzen eta aplikatzen dela ikuskatzea, eta hori garatzen duten erabakiak onartzea.
 - 2) Parte ez hartzeko betebeharraren edo Unibasqen Etika Kodearen 11. artikulua araberako Batzordearen aurrean aurkez litezkeen ezespren-eskaeren inguruko komunikazioak ebaluatzea eta komunikazio horiei buruzko erabakiak hartzea.
 - 3) Kodearen eta, behar izanez gero, Erregelamenduaren ezarpenaren aldizkako berrikuspenak egitea, eta emaitza horiek Gobernu Kontseilura helaraztea.
 - 4) Ziurtapen-erabakien, egiaztapen-erabakien edo Unibasqetik eratorritako nahitaezko ebaluazio-txostenen aurka aurkeztutako errekurtsoei buruzko erabakia hartzea, baldin eta errekurtso horiek aztertutako pertsonaren edo erakundearen alde ezarritako bermeren bat urratzen duen akats formal batean edo prozesuan esku hartu duen pertsonaren baten inpartzialtasunik ezean oinarritzen badira. Ebazpenak errekurtsoa baiesten badu, erabakiaren deuseztasun-deklarazioa egingo da eta errekurritutako ziurtapena, egiaztapena edo ebaluazio-txostena berriro egin beharko da. Errekurtsu hori jartzeko prozedura eta kausak Erregelamendu honen 6. artikuluan garatzen dira.
 - 5) Kodea urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioen berri ematea, baldin eta erreklamazio horien oinarria aurreko zenbakian zehaztu ez den arrazoiren bat bada. Erreklamazio horiek jartzeko prozedura Erregelamendu honen 7. artikuluan garatzen da.
- Batzorde honen helburuetatik kanpo geratzen dira lan-gatazkekin zerikusia duten gaiak aztertzea.

2. artikulua. Jardun-eremua.

1. Etika eta Berme Batzordea ikuskapen- eta berme-organoa da eta edozein eskatzailek, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek ez ezik, Unibasqekin harremana duten edo Unibasqen jardunek zuzenean edo zeharka eragiten dieten beste erakunde eta pertsona batzuek ere egindako edozein errekerimendu artatuko du, betiere errekerimendu horren oinarria Etika eta Berme Kodearen aginduren bat ez betetzea bada.

2. Errekerimenduaren funtsa Etika eta Berme Kodearen 11. artikuluan (Unibasqetik eratorritako ziurtapen-erabakiaren, egiaztapen-erabakiaren edo ebaluazio-txostenen aurka jarritako errekurtsoei buruzkoan) azaltzen den parte ez hartzeko betebeharraren eta ezesprenaren inguruko jakinarazpenetan oinarritzen bada, Batzordearen jardunak zerbitzuak Unibasqen eskaintzen dituzten edo Unibasq osatzen duten pertsona eta organo guztientzako loteslea izango den erabaki batekin amaituko dira. Gai horiek Erregelamendu honen 6. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera gauzatuko dira.

3. Errekerimenduaren funtsa Etika eta Berme Kodearen beste agindu batzuk ez betetzean oinarritzen bada, Batzordearen jardunak dagokion organoaren edo pertsonaren aurrean loteslea izango ez den

txosten bat eginez amaituko dira, betiere Erregelamendu honen 7. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. artikulua. Batzordearen osaera

1. Euskal Unibertsitate Sistematik eta Agentziaren gobernu- eta/edo ebaluazio-organo guztietatik kanpo dauden hiru pertsonaz osatuta egongo da batzorde hau. Horietako bat Gobernu Kontseiluak hautatuko du, beste bat Aholkularitza Batzordeak, eta hirugarrena Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordeak.

Batzordeak Unibasqeko plantillako pertsona baten laguntza izango du, hitzarekin baina botorik gabe, eta idazkaritza teknikoko zereginak beteko ditu.

Batzordea osatzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta behin baino ezin izango dute kargua berri aldian bererako. Pertsona horiek ezin izango dira berriro izendatu kargua uzten dutenetik hiru urte igaro arte.

2. Batzordekideek honako kausa hauetakoren batengatik utzi ahal izango diote batzordekide izateari:

- a) Norberak eskatuta Batzordearen presidenteari zuzendutako idazki bidez.
- b) Agintaldia bukatzen dutenean.
- c) Ezinbesteko bateraezintasunagatik.
- d) Gaitasungabetzea edo eginkizungabetzea dakarren ebazpen irmo bidez.
- e) Dagozkien eginkizunen eta betebeharren ez-betetze larria, behin eta berriro gertatua eta nahita egindakoa, Etika eta Berme Batzordeak berak halakotzat hartzen badu, betiere gaia gai-zerrendan sartu ondoren. Batzordetik kanpo uzteko proposatu den pertsonak ezin izango du puntu horretan parte hartu, ezta puntu horri buruzko eztabaidetan eta bozketan ere; horrenbestez, bileratik atera beharko du puntu hori aztertzen hasten direnean.

4. artikulua. Egitura eta eginkizunen banaketa.

1. Aholku Batzordeak izendatutako pertsona bat izango da Batzordeko presidente. Idazkari-kargua Agentziaren plantillakoa den pertsonak izango du, eta Batzordeak behar izan dezakeen laguntza teknikoa eskainiko du. Batzordea osatzen duten beste bi pertsonak bokal-kargua izango dute.

2. Honako hauek dira presidentearen eginkizunak:

- a) Organoaren ordezkaritza izatea.
- b) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia erabakitzea eta gai-zerrenda zehaztea; eta dagokionean, gainerako kideek gutxienez 48 orduko aurrerapenaz egindako eskaerak kontuan izan beharko ditu. Era berean, gai-zerrendan nahitaez sartu beharko dira 2. artikuluan aipatutako pertsonen Etika eta Berme Batzordera bideratutako komunikazioak.
- c) Bilkuren buru izatea, eztabaiden garapena gidatzea eta eztabaidak atzeratzea kausa justifikatuengatik.
- d) Organoaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ontzat ematea.
- e) Kide anitzeko organoko beste kide bat gehiago den aldetik, dagozkion eskubideak baliatzea.
- f) Organoaren presidente den aldetik, kargu horri lotutako beste edozein eginkizun egikaritzea, baita Erregelamenduan edo aplikatutako dakiokoen araudian aurreikusitako beste batzuk egikaritzea ere.

Presidenterik ez badago, hura ez bada bertaratu edo gaixorik badago, presidentearen eginkizunak bertaratutakoen artetik zaharrena denak egikaritu beharko ditu, betiere pertsona hori presidentea ez bada.

3. Honako hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- a) Presidenteak aginduta, Batzordeko bilkuretarako deialdia egitea.
- b) Gaien azterketa prestatzea, bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.
- c) Erabakien ziurtagiriak prestatzea presidentearen aginduz, eta presidenteak sinatuko ditu.

4. Honako hauek dira bokalen eginkizunak:

- 1) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
- 2) Galde-eskeak egitea.
- 3) Bokala den aldetik, kargu horri lotutako beste edozein eginkizun egikaritzea, baita Erregelamenduan edo aplikatu dakioken araudian aurreikusitako beste batzuk ere egikaritzea.

5. artikulua. Batzordearen funtzionamendua.

1. Batzordea bere aurrean errekerimenduren bat aurkezten denean bilduko da, kasu jakin horri erantzun arretatsua eta dagokion epean eman ahal izateko, eta gatazka gehiago ez luzatzeko. Halaber, landu behar diren gaiak daudela irizten denean deitu ahal izango da. Nolanahi ere, gutxienez urtean behin bildu beharko du. Bilera birtualak edo presentziazkoak egiteko aukera dago.

2. Erabakiak hartzeko, Batzordea osatzen duten pertsonen gehiengoak bertaratu beharko du gutxienez. Erabakiak bertaratutakoen gehiengoz hartuko dira, eta bat ez datorren batzordekideak boto partikularra idatzi ahal izango du.

Etika eta Berme Batzordeak adituen irizpenak eskatu ahal izango ditu, baldin eta jardunak gauzatzeko beharrezkoa dela irizten bada.

3. Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik, salbu eta organoko kide guztiak bertaratu badira eta aztergaia presakoa dela aho batez erabakitzen bada.

Eskatu ahal izango da gai-zerrendan azaltzen den gairen bat kentzea, gai horri buruzko aurrekariak, dokumentuak edo txostenak gehitzeko, baldin eta kide gehienek ustez aurrekari, dokumentu edo txosten horiek gabe ezinezkoa bada erabakia hartzea.

4. Bilera amaitutakoan, bileraren akta egin eta onartuko da. Akta horretan honako hauek bilduko dira: bertaratutako kideak, gai-zerrenda, bilera egin den lekuaren eta denboraren zirkunstantziak, egindako gogoeten puntu nagusiak eta hartutako erabakiak.

Aktak Batzordeko idazkariak zainduko ditu. Interes legitimo baten titulartasuna egiaztatzen dutenek idazkariarengana jo ahalko dute erabakien ziurtagiria eman diezaien. Era berean, idazkariak ziurtagiria egin beharko du eta pertsona, organo edo erakunde jakin batzuei eragiten dietelako Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jakinarazi behar diren erabaki jakin batzuei buruzko komunikazioa egin beharko du. Hartutako erabakiak komunikatzen direnean, izaera pertsonaleko datuen konfidentziaztasuna gorde beharko da, legez ezarritakoaren arabera.

5. Batzordean eta, baldin baleude, Batzordearen lantaldeetan parte hartzen duten pertsonak eskuratzen duten informazio ororen konfidentzialtasuna errespetatu beharko dute, eta, gainera, egindako gogoetak isilpean gorde beharko dituzte.

6. artikulua. Etika Kodearen 10. eta 11. artikuluetan aintzat hartzen diren kasuak eta Unibasquetik eratorritako ziurtapen-erabakien, egiaztapen-erabakien edo ebaluazio-txostenen aurka aurkezten diren errekurtsuak artatzeko prozedura.

1. Parte ez hartzeko, ezespena eskatzeko edo errekurtsua jartzeko arrazoiei buruzko edozein komunikazio Etika eta Berme Batzordearen presidentziara igorri beharko da posta arruntez (Unibasq, Etika eta Berme Batzordea, San Prudentzio kalea 8, 01005, Vitoria-Gasteiz), edo posta elektronikoko bidez (comite_etica@unibasq.org). Errekerimendua igortzen duenari jakinaraziko zaio errekerimendua jaso dela, eta bidezkoa ote den errekerimendua izapidetzea bide hau erabiliz.

2. Eskabidean adierazi beharko da zein den komunikazioaren, eskaeraren edo errekurtsuaren kausa; nolana ere, honako kausa hauetakoren batean oinarrituta egon beharko du:

- a.- Etika Kodearen 10. artikulua –inpartzialtasunari eta bateraezintasun-kausei buruzkoa– urratzea.
- b.- Dagokion egiaztapen-, ebaluazio- edo ziurtapen-programarako ezarritako prozedura-arauak haustea.
- c.- Prozesuaren egintzak eta bermeak arautzen dituzten lege-arauak haustea, baldin eta arau-haustek ekarri badu legearen arabera baliogabetzea edo defentsarik eza edo funtsezko eskubideren bat urratzea eragin badu.

3. Etika eta Berme Batzordeak, komunikazioa, eskaera edo errekurtsua jaso ondoren, informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio prozedurari hasiera eman dion pertsonari edo dagozkion instantziei, erreklamazioa balioesteko beharrezkoak direla uste badu. Halaber, balioespenaren berri emango die balioespen horretan aipatzen diren pertsonari, egokitzen hartzen dituzten alegazioak egiteko aukera izan dezaten.

4. Komunikazioaren, eskaeraren edo errekurtsuaren azterketa amaitu ostean, Batzordeak erabaki loteslea hartuko du.

Parte ez hartzeko edo ezesteko prozedura bat bada, erabakiaren edukia aipatutako Kodearen 11. artikuluan ezarritakora egokituko da.

Prozedura Unibasquetik eratorritako ziurtapen-erabakien, egiaztapen-erabakien edo ebaluazioaren aurkako errekurtsu batetik erortzen bada, erabakiak adierazi beharko du erabilitako prozeduran akats formalik ote dagoen, edo Etika Kodearen 10. artikulurekiko bateraezintasun-arrazoirik ote dagoen edo inplikaturako pertsonaren edo pertsonen funtsezko eskubideren bat urratu ote den

Errekurtsua balioesteko arrazoirik badago, erabakiak baliogabetu egingo du errekurritutako egiaztapena, ziurtapena edo ebaluazio-txostena, eta aginduko du jardunak arau-haustea edo urraketa gertatu zenean zeuden goerara eta unera itzul daitezela.

7. artikulua. Aurreko artikuluan bildu ez diren erreklamazioak artatzeko prozedura.

1. Euskal unibertsitate-sisteman sartuta dagoen edo sistema hori erabiltzen duen pertsona fisiko edo juridiko orok ez ezik, Unibasqeko jardunek zuzenean edo zeharka eraginpean hartzen dituzten edo laguntzen duten erakundeek eta pertsonak ere, ikusten dutenean Etika eta Berme Kodearen urraketaren bat dagoela, aurreko artikuluan bildutakoen artean ez dagoena, dagokion erreklamazioa egin ahal izango diote Etika eta Berme Batzordeari.

Horretarako, dagokion idazkia igorri beharko dute Etika eta Berme Batzordearen presidentziara posta arruntez (Unibasq, Etika eta Berme Batzordea, San Prudentzio kalea 8, 01005, Vitoria-Gasteiz), edo posta elektronikoz bidez (comite_etica@unibasq.org). Errekerimendua igortzen duenari jakinaraziko zaio errekerimendua jaso dela, eta bidezkoa ote den errekerimendua izapidetzea bide hau erabiliz.

2. Erreklamazio-idazkian honako hauek zehaztu beharko dira:

- a) Erreklamazioa behar bezala ebaluatzeko beharrezkoak diren gertakariak eta/edo datuak, haiek frogatzeko beharrezkoak diren dokumentuekin.
- b) Urratutzat jotzen diren Kodearen artikulua, printzipioa edo balioa.

3. Batzordeak informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkie dagozkion instantzietan, erreklamazioa balioesteko beharrezkoak direla uste badu. Halaber, balioespenaren berri emango die balioespen horretan aipatzen diren pertsonen, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiteko aukera izan dezaten.

4. Erreklamazioa zehatz-mehatz aztertzen amaitu ondoren, Batzordeak loteslea ez den txostena egingo du eta prozeduran aipatzen diren Unibasqeko pertsona eta organoei gomendioak emango dizkie Etika eta Berme Kodea betetzeari buruz. Prozeduran inplikaturako pertsona eta organoei bidaliko zaie txostena.

8. artikulua. Unibasqen etika sustatzeko ekimenak

Etika eta Berme Batzordeak unibertsitate-kalitatearen esparruan etika sustatzeko ekimenak igorriko dizkio Unibasqen Gobernu Kontseiluari. Zehazki, egoki irizitako Etika Kodearen hobekuntza-proposamenak egingo ditu.

Euskal unibertsitate-sistemako kolektiboek Kodea ezagutzeko, errespetatzeko eta ezartzeko lagungarri diren proposamenak ere egingo ditu, baita, hala badagokio, kolektibo horiek Kodea eztabaidatzeko ere, Kodea bera hobetze aldera.

Unibertsitate-testuingururako etikako prestakuntza-ikastaroak proposatuko ditu, egoki irizitako edukiekin eta hartzailentzat.

9. artikulua. Kontuak ematea

Etika eta Berme Batzordeak txosten bat egin eta argitaratuko du urtero, bertan Kodea ezarri eta aplikatzerakoan izan diren gorabeherak bilduko dira. Txosten horretan, erabaki loteslean edo gomendioak ematen dituen txosten batean amaitu diren Batzordearen jardunetakoren batean parte hartu duten pertsonen eta erakundeen behar besteko konfidentziasuna errespetatuko da.